



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: GURUTZE

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2019-10-03	19:05	21:10

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Eneritz Arbelaitz, Iosune Cousillas, Arrosa Lizaso eta Josu Delgado			
Herritarrak:	Euskaraz: 6		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 3		Gizonezkoak: 3	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 3	51-65 urte: 2	>66 urte: 1

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Ez da galderarik egin.
Aurrekontuak 2020	Ez da galderarik egin.
Oiartzun	-Auzotar batek galdetu du ia noiz egingo diren jubilatuentzat baratzak. Erantzun da lehen sektorea aktibitate bezala bultzatzeko dagoela asmoa, ez aisialdirako. -Etxebizitzen inguruan sortu da elkarrizketa. Etxe ereduak, plan orokorra....
Auzoa	-Tokiren gainean dagoen etxean (Arkaleatze bidea), menditik datorren ura etxera sartzen da. Arketa bat, kuneta bat edo egitea eskatzen dute. Hiru bat alditan ura bertara joan zaie. - Galdosen aurrean dagoen barandaren inguruan aukera ezberdinak atera dira. Berritu beharrean, aukera izan daiteke baranda espaloiairen muga jartzea piboteak jarri gabe. Beste aukera baranda jarri eta piboteak ez jarri. Edota bestela, ezer ez jarri. -Auzotar batek esan du Gurutzeko baranda auzolanean egin zela. - Aparkalekuko sarrera txikian, bidegorriko sarrera edota Santiago bideko sarrera den horretan, zulo bat dago eta ez da egokia kotxeentzat. Horri irtenbide bat



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



eman behar zaio. Ibilgailuentzat debekatua jarri behar da ezin badute sartu (depositura joan behar duten langileentzat aukera utziz).

-Gurutzetik kalera joateko oinezkoaren bidearen inguruan galdetu da. Plan orokorraren baitan zer aurreikusten den azaldu da.

-Auzotar batek komentatu du elkartearen ondoan dagoen terreno partikularreko jabeak esan zuela bera prest dagoela auzoarekin hitz egiteko bere lur puskarekin edozertarako erraztasunak emateko.

-Auzotar batek hitz egin du auzoko etorkizunaren inguruan. Zer nahi dugu? Auzoa zahartzen ari da.... Jende berria ez da etorri azkeneko urteetan. Bertako gazteak gutxienez bertan geratzeko, edota herri-hiritik lasaitasun bila joan nahi dutenak etortzeko aukera egon beharko luke. Bidegorri ondoko herriko lur horretan etxeak egitea proposatzen du bertako gazteak bertan gelditzeko aukera izan dezaten.

-Taxibusa asteburuetan jartzea. Espaloirik eta bidegorririk ez dagoenez, proposatu da nolabait auzoa premiatzea beste zerbitzuekin.

-Arkaleazpiko arkaitzen mantenua zeini dagokion galdetu da. Oso zikina dagoela eta mendiko garbiketa behar duela.

-Peluko erreka oso zikina dago. Garbitzea eta txukuntzea proposatu da.

-Depuradoran oraindik ere, tarteka usaia dagoela aipatu da.

-Gaztelu baserrira doan herribidea konpontzea eskatu du bertako jabeak. Oso arriskutsu dagoela eta batzuetan sustoak eduki dituela. Eskaera egin behar duela esan zaio. Bestaldetik bere baserri inguruan lurrak oso zikinak daudela aipatu du. Erantzun zaio jakin beharko litzatekela noren eskumenean dauden lurra horiek.



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	10,00
Bilera ongi gidatu da	10,00
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	10,00
Auzotar kopurua	4,00
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8,00
Saioa probetxugarria izan al da?	8,00
Egunaren egokitasuna	8,50
Orduaren egokitasuna	9,50
Lekuaren egokitasuna	10,00
Batezbestekoa	8,67